



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.º Zka.

LUBERRI HILERRIAREN BARNE ERREJIMENEN ERREGELAMENDUA (LAZKAOKO UDALERRIA).

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Luberri izeneko Udal Hilerrria Lazkaoko Udalaren jabetzakoa da eta beronen gain dago hura administratu, zaindu eta zuzentzea.

2. Artikulua.

Luberri Hilerrria, Lazkaoko biztanle guztien erabilerako egongo da eta bertan enpadronatu eta bizi direnek erabiltzeko eskubidea izango dute.

Eskubide bera izango dute baita ere:

- Residentzi edo Udal herri honetatik kanpo etxebizitza duten bizilagunek.
- Herri honetatik kanpo bizi baina beren jaioterrian lurperatzeko nahia agertzen duten bizilagunek.

3. Artikulua.

Hilerrria administratu, zaindu eta zuzentzeko lanetan Udalari honako eginkizun hauek dagozkio:

- 1.- Hilerrria zaindu, garbitu eta atontzea.
- 2.- Zerbitzuak antolatzea.
- 3.- Partzela eta hilobien gaineko hileta eskubideak ematea.
- 4.- Lurrak okupatzeagatik eta obra lizentziak emateagatik bidezko diren eskubideak eta tasak kobratzea.
- 5.- Emanak dauden edo aurrerantzean emango diren osasun neurriak betetzea.
- 6.- Bere zerbitzupeko pertsonala izendatu eta postutik kentzea.

4. Artikulua.

Jende guztiarentzat irekitzeko ordutegia ondorengo izango da:

- Ostegunetan, goizeko 9etatik arratsaldeko 7etara.
- Azaroak 1, Santu Guztien Egunaren inguruan, aurreko eta ondorengo astean, egunero, goizeko 9etatik arratsaldeko 7etara.

Aipaturiko ordu eta egunetatik kanpo bisitaldia egin nahi duten guztiek, Udaletxean giltza bat izango dute, bisita egin ondoren itzuli beharko dutena.

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.º Zka.

...///...

II. KAPITULUA: PERTSONALA

5. Artikulua.

Pertsonalaz Udalak hornituko du, Errejimen Lokaleko Legean eta Administrazio Lokaleko Funtzionarioen Erregelamenduan pertsonalaren atxikipenerako aurrikusitakoaren arabera.

6. Artikulua.

Ehorzleak eginkizun hauek ditu:

a) Hilerrria eta bertako dependentziak txukun eduki eta barruko apaindurak zaintzea, baita landareak, zuhaitzak, belarra, bideak eta esparrua osatzen duten gainerako elementuak kontserbatzea ere.

b) Bertan dauden gauza guztiak zaintzea, baita hilobien apaindurak eta zerbitzurako behar dituzten elementu, tresna eta lanabesak ere.

c) Gorpu gelan bertan dagoen autopsia aretoa garbitasun egoera ezin hobean mantentzea eta autopsiak egiteko tresneria zaintzea, behar bezala desinfektatua eta antolatua.

d) Ehorzteko ematen zaizkion hilotzak eta hondakinak hartu eta garraiatzea, gorpu gelan utziz hala dagokionean. Edozein kasutan, Udaleko sekzioaren baldintzak behar bezala betetzen dituen ehorzketa txartela aurkezteko eskatu beharko du eta bere adostasunarekin udal sekzio berberari itzuli zerbitzua burutu ondoren, baldintza hori behar-beharrezkoa izanik eta hori gabe ezin izango delarik inola ere ehorzketarik egin.

e) Hilobiratzeko nahiz hilobitik ateratzeko, kasua balitz, eta hilobiak itxi edo estaltzeko beharrezkoak diren lanak burutzea.

f) Hilerrriko giltzak gordetzea Alkatetzak bestelakorik erabakiko ez balu.

g) Esparruaren barruko martxa ona zaintzea, itsusikeriak eta tokiak behar duen errespetoaren kaltetan doazen pertsonak egotea edo ekintzak burutzea eragotziz.

h) Alkateak bere eskumenaren barne emandako agindu bereziak aurrera eramatea.

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.º Zka.

...///...

III. KAPITULUA: SAILKAPENA

7. Artikulua.

Eraikitzean onartu zen planoan ezarritako prebisioren arabera banatuta geratzen da Hilerria. Beraz, horren arabera hiru hilobi mota eraiki daitezke.

A) Nitxoak, B) Panteoiak, C) Fosa Arruntak.

8. Artikulua.

Nitxoak, fosa arruntak eta panteoiak beharren prebisiio estadistikek aholkatzen duten kopuruan eraiki daitezzen zainduko du Udalak eta haien gaineko hileta eskubidea emango die eskatzaileei, bere garaian zehazten diren udal erizpideei jarraituz.

9. Artikulua.

Hilerriaren planoan helburu horretarako adierazitako lurretan burutuko dira ehorzketak fosa arrunt, nitxo eta panteoitant. Plano hori uneoro ikusgai egongo da esparruko instalazioetan.

I. SEKZIOA: NITXOAK

10. Artikulua.

Eraikitako nitxoak eta aurrerantzean eraikiko direnak hilobien Osasun Poliziaren Erregelamenduak eskatutako osasun araei eta neurriei egokituko zaizkie. Korrelatiboki zenbatuko dira.

11. Artikulua.

Horrela eraikitako nitxoen gaineko hileta eskubidea aldi baterako emango da hilotzak edo hondakinak gordetzeko eta ordenantza fiskalak kasu bakoitzean adierazten dituen eskubideak ordainduz bereganatuko da.

12. Artikulua.

Nitxoen gainean emandako hileta eskubidea luzagarri den urtetarakoa dela ulertzen da, Erregelamendu honetako 36. artikuluan iraungitasunari buruz ikusten denaren kalterik gabe.

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.ºZka.

...///...

13. Artikulua.

Hileta eskubideen titularrek Hilerriaren kontserbazioan laguntzeko obligazioa dute, Udalak ezarririk dauzkan edo aurretantzean ezarriko dituen eskubideak ordainduz.

II. SEKZIOA: PANTEOIAK

14. Artikulua.

Helburu honetarako partzelen gaineko hileta eskubidea 75 urtez emango zaie adjudikaziodunei, luzatu egin daitekeena Erregelamendu honetako 36.artikulan ezarritakoaren kalterik gabe.

15. Artikulua.

Alkatetzaren Dekretu bidez adjudikatuko dira partzelak eskatzaileen artean.

16. Artikulua.

Obra mota guztiak burutzeko, baita panteoiak konpontzeko ere, alde aurreko onespina eta udal baimena eskuratzea beharko dira.

17. Artikulua.

Panteoien titularrek edo horretarako baimendutako pertsonen haien apaindurak zaindu ditzakete, erregelamendu honetan ezarritako eraikuntzako udal ordenantzen arabera.

18. Artikulua.

Panteoien aplikaziokoa izango da Hilerriaren kontserbazio eskubideari buruz 13. artikuluan aurrikusitakoa.

19. Artikulua.

Panteoiaren edukierak uzten duen hilotz kopurua ehortzi daiteke, ehorzketa eskubidearen jabeek ahalmena dutelarik hilotzak emakidaren epea amaitzen den egunera arte uzteko, hondakinak suntsitzeko panteoi bereko hezurtegian gera daitezen egun berera arte edota hilobitik ateratzeko alde aurretik erregelamenduzko baimenak edukita eta kontzeptu horiengatik bidezko diren eskubideak ordainduta, Ordenatza Fiskalen arabera. Panteoietak ehorzketa erregelamenduzko xedapenak bete ondoren bakarrik baimenduko dira.

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.º Zka.

...///...

20. Artikulua.

Panteoi batean ehorzketa egin ondoren, berehala zerraldoa daukan tokia itxi egingo da Udaleko pertsonalaren aldetik eta kostua hilobiaren kontzesiodunaren kargura izanik, lan horiek burutzen egin litezkeen kalteen erantzule gertatu gabe. Barruan edozein iharduera burutzeko panteoi bat ireki eta ixteko harlosak mugitzea udal pertsonalaren aldetik eta kontura izango da.

21. Artikulua.

Emandako edozein hilobitan burutu behar den ehorzketa oro egiteko titularrak aldeztu aurretik espreski baimenduko du eta gainera emakidaren titulua emango du hilerriko bulegoan aurkeztua izan dadin, dagozkion anotazioak egin daitezten. Baimena aurkeztu beharraren salbuespena egongo da hileta eskubidearen titularraren ehorzketa denean.

III. SEKZIOA: FOSA ARRUNTAK

22. Artikulua.

Ehorzketak Hilerrian bertan egokitutako fosetan, horretarako erreserbaturiko eta bertako Planta Orokorreko planoan adierazitako zonetan izango dira.

23. Artikulua.

Fosak korrelatiboki zenbatuak izango dira, beraietan ehorztekoko hileta eskubidea zenbaketa ordena zorrotzari jarraituz emango delarik eta ezingo dira berriro erabili hutsik daudenak bete arte, azken ehorzketatik 10 urte iragan ondoren, beti ere.

24. Artikulua.

Aurreko artikuluan xedatutakoa arren, Udalak alderdi baten eskabidez adierazitako epeen luzapena eman dezake Ordenantza Fiskalaren arabera bidezko diren eskubideak ordainduz gero.

25. Artikulua.

Fosa arrunten gaineko hileta eskubideen emakida aldi baterakoa da eta Ongitzaoko Erroldetan sartutako pertsonentzat eta txirotasun jotakoentzat dohan izango da.

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.º Zka.

...///...

26. Artikulua.

Aurreko aurtikuluan aipatutako aldi baterakotasunak zera dakar, emakidaren epea amaiturik, hildakoaren familiakoek edo ahaideak horretaz oharturik 23. artikuluan aipatutako luzapena edo hondakinak beste hilobi batetara aldatzeko eskatzen ez badute, Udalak hondakinak bildu eta hezurtegi orokorrera eramatea erabaki dezake. Lurperatuta leudekeen gauza eta jantziei dagokionez Kode Zibileko 615. artikuluan ezarritako tramiteak jarraituko dira.

IV. KAPITULUA: HILETA ESKUBIDE EMAKIDEN TITULAZIOA

27. Artikulua.

Hilobien gaineko hileta eskubidea bermaturik geratuko da dagokion Liburu-Erregistroan inskribatuz, Alkatetzaren Oneritziarekin.

28. Artikulua.

Hileta eskubidea eskatzailearen edo bi ezkontideen izenean erregistratuko da, senar-emazte direla zuritu ondoren.

29. Artikulua.

Hileta eskubide baten titular guztiek onuradunak izenda ditzateke beraiek hil eta gerorako. Ezkontideen izenean hartutako hilobietan hildakoaren onuradun bizirik geratzen dena dela ulertzen da, eta horrek ere beste onuradun batzuk izenda ditzake.

30. Artikulua.

Onuradun jakinik izendatuko ez balitz, hileta eta eskubi-dearen titulartasuna Titularraren testamentuzko oinordekoei eskualdatutzat ulertuko da, eta horrelakorik ez balego legeria zibilean aurrikusitako ondorengotze ordenaren arabera esku-aldatuko da.

31. Artikulua.

Edozein kasutan hilobi baten Titularrak bere familiakoak eta berarekiko adeitasun berezia edo errukizko arrazoa duten pertsonak ere bertan lurperatuak izateko eskubidea izango du, nolana ere, hileta tituluaren aurkezpena eskatuko delarik.

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.º Zka.

...///...

32. Artikulua.

Edozein arrazoiengatik titulu batek kalterik jasango balu, berdina den beste batez truka daiteke. Lapurtu edo galdu egingo balitz bikoiztu bat luzatuko da Titularraren alde, eska-bide horri dagokion publizitatea eman ondoren.

33. Artikulua.

Izenean, abizenetan edo beste inon egiten diren okerrak Titularraren eskabidez zuzenduko dira, horiek zuritu eta frogatu ondoren.

V. KAPITULUA: LUR-ZATI EMATEA

34. Artikulua.

Udalak Lur-zatiei buruz, kontzetsio Administratiboak eman ditzazke, interesatu bakoitzak fosa komun bihurtu edo lur-zati horretan nitxo edo panteoiak eraiki ditzan.

35. Artikulua.

Lur-zatien kontzetsio Administratiboek hauen gain 75 urte-tan izango dute hilobi eskubidea, 99 urteetararte luza daite-keena, aurrez, ordenantza fiskaletan finkaturik dauden kopuruak ordainduz, lur-zatien kontzetsiorik gabe emandako nitxo eta fo-sa arrunten gaineko hilobi eskubideetarako epeak ezartzekoak ez direlarik.

Hilobi-emakida nahiz fosa arrunt, nitxo edo panteoi bihur-tu, Erregelamentu honetan ezarritako kondizioei egokitu beharko da.

VI. KAPITULUA: IRAUNGIPENA

36. Artikulua.

Hileta eskubide baten iraungipena deklaratu daiteke eta kasu horretan Udalari itzuliko zaio partzela bertan eraikitako guz-tiarekin, kasu hauetan:

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.º Zka.

...///...

a) Eraikina aurri egoeran egoteagatik. Aurri egoera honen deklarazioak eta ondorengo iraungipenak administrazio espedientea beharko du Alkatetzaren ekimenez.

b) Hilobiaren abandonuagatik. Abandonutzat hartuko da titularra hil eta 30 urte iraganik onuradunek, oinordekoek edo eskubidea bereganatzen dutenek beraien aldeko eskualdaketa eskatzen ez badute.

c) Behar bezala eskatu gabe emakida epeen luzapena amaitzeagatik.

VII. ARTIKULUA: EHORZKETAK, HILOBITIK ATERATZEAK, LEKUALDAKETAK

37. Artikulua.

Hilobietan ezarri edo inskribatu nahi diren epitafioak, oroigarriak eta ikurrak Udaleko Alkatetzak zentsuratuak izan daitezke.

38. Artikulua.

Hilerrira ezin da gauzarik sartu ez eta handik atera ere beharrezko baimena izan gabe, tokiaren izaerak merezi ez dituenak ezartzea galerazi edo kendu egingo direlarik.

39. Artikulua.

Gorpu eta hondakinen ehorketak, hilobitik ateratzeak eta lekualdaketak indarrean dagoen Hilobien Osasun Poliziari buruzko Erregelamenduko arau berezien bidez arautuko dira.

40. Artikulua.

Ez da hilotzik ehortziko usteldurazko zantzu nabarmenik ez daukanik, eta inoiz ez hil baino 24 ordu lehenago. Baldin eta usteldura azkarrarengatik edo kutsadura arriskuagatik edo bestelako osasun arrazoiengatik epe hori baino lehenago hilotza garraiatuko balitz, Hilerriko gorpu gelan utzi beharko da.

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.ºZka.

...///...

41. Artikulua.

Ezin irekiko da panteoi, fosa arrunt edo nitxorik azkeneko ehorzketatik bi urte iragan arte edo bost urte heriotza gaisotasun kutsakorraren ondorioz gertatu bazen. Salbuetsirik daude enbaltsamatutako edo garraiorako enbaltsamatzen diren hilotzak dauzkaten hilobiak.

42. Artikulua.

Aurreko artikuluan esandako arrazoiengatik hilobi baten ehorzterik ez badago behin behingoz eta aldi baterako beste nitxo batean ehortziko da artikulua horretan adierazitako epealdi berdinetan eta horiek amaiturik luzapenerako arrazoirik ez badago hilotza edo hondakinak lehenengo hilobira ofizioz lekualdatuko dira eta horren tituluan adierazirik geratuko da edozein mugimendu etengo dela lekualdaketa egin arte.

43. Artikulua.

Beste hilotz hondakin batzuk dauzkaten hilobietan ehorzketak egiten denean, ekinaldi berean haiek suntsitu egingo dira. Titularraren eskabide espresuarekin soilik egin daiteke operazioa ehortzi aurretik.

44. Artikulua.

Ehorzketa bat emateko Udaletxeko sekzio egokian hurrengo agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Hilobiaren titulua.

b) Ehorztekoko lizentzia.

c) Udal Juezaren baimena edo eskumena lukenarena berezko heriotza ez denetan.

45. Artikulua.

Aurkeztutako agiriak ikusirik ehorzketa txartela luzatuko da, Hilerrian hilotzarekin batera aurkeztuko dena, agiriak legez daudela zurrizteko eta ehorzketa egin daitekeela, hilotza gorpu gelan utziz ala ez.

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.º Zka.

...///...

46. Artikulua.

Aurreko artikuluan aipatutako ehorzketa txarteletan honakoak adieraziko dira:

- a) Hildakoaren izen-abizenak.
- b) Heriotzaren eguna.
- c) Heriotzaren kausa.
- d) Ehorztekoko tokia, ehortzi behar deneko nitxo, panteoi edo fosa arrunta zehazki adieraziz.
- e) Gorpu gelan utzi behar den ala ez.

Txartel hori egun berean ehorzleak Udalari itzuliko dio behar bezala sinatua, ondo bete dela zurrizteko.

47. Artikulua.

Hilotzak hilobitik atera eta lekuz aldatu ahal izateko Udalaren baimena beharko da eta edozein kasutan Osasunaren Probintziako Buruzagitzaren alde aurreko baimena.

48. Artikulua.

Udaletxeko Sekzio egokian hilobien Erregistroa arretaz eramango da liburu zigilatu eta orrialdeztatuan, honako hauek agertuz:

- a) Hilobiaren identifikazioa.
- b) Emakidaren data.
- c) Titularraren izena, abizenak eta egoitza.
- d) Izendatutako onuraduna, kasua balitz.
- e) Egindako eskualdaketak.
- f) Ehorzketak, hilobitik ateratzeak eta lekualdaketak, hilotzaren data, izen-abizenak eta sexua adieraziz.
- g) Ordaindutako eskubideak.

49. Artikulua.

Hilobien Erregistro Liburuaz aparte fitxategia eramango da, haren lagungarri izango dena.

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.º Zka.

...///...

ERANSKINA

LAZKAOKO UDAL-HILERRIRAKO EDIFIKAZIO-ORDENANZA

I.- LURREKO HILOBIRATZEAK.- Lurreko hilobiratzeak onartu egiten dira, hilobiaren azalera berdez edo fabrikako plakaz estalita utzi beharko delarik.

Gainekoa ormigoi soilekoa izango da, inskripzioetarako zehaztutako neurritako marmolezko plakak onartuz bakarrik. (2. irudia)

Isurbidetzat, ormigoizko obrek gehienera %3ko aldapa izan ahalko dute. Honez gain, mugaturiko hiru inskripzio motak onartuko dira.

Lur soilean uzten bada, berde mantenduko da, zuhaixka edo 60 zentimetro azpiagoko albo-itxiturak ere erabiltzeko aukera izango delarik.

II.- NITXO EDO PANTEOI ERAIKUNTZAK.- Nitxoak eraikitzeke erabiliko lur-zatia 9 metro karratutakoa izango da, mugatzaileen artean lur zati erabilgarriaren muga elkarren arteko lerro mugatzailetik bi aldetara 15 zentimetroko tartea egongo delarik.

Aipatu lur-zatia lurpeko zein lurgaineko harresi bat egiteko nola zuhaixkak landatzeko erabili ahal izango da. (1. irudia)

Solairuaren gehienezko neurriak hauexek izango dira: 2,75 metro luzeran edo sakonean eta 2,55 metro zabaleran.

Altuera +- Oren araberakoa izango da, hots, lurzorutik 0,80 metro errenkada batentzako eta 1,60 metro bi errenkadentzako eta gehienezko alturaren gisa.

Materialen errematea ormigoizkoa izango da, lisoa edo aboiartatua.

Inskripzio eta apaingarriak, baimendutako 1,60 metroko altura baino gehiago ezin izango dira igo.

III.- INSKRIPZIO ETA OROITGARRIAK.- Inskripzio eta oroitgarrietan hiru mota hauek onartzen dira:

- A.- Estelak
- B.- Gurutzeak
- D.- Plakak

...///...



LAZKAOKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

(GIPUZKOA)

N.º Zka.

...///...

bete beharko dituzten baldintzak honako hauek izanik:

- 1.- Neurriak: kanpokaldeko neurriak zabalerako 0,60 metro eta altuerako metro batekoak izango dira.
- 2.- Materialeak: ormigoia, marmola edo beste edozein harri klase.
- 3.- Inskripzioak: edozein koloretan, nahiz azalera edo barnealdea erreliebean izan.